

## TEKNOLOGIA

# Bizitza ona



DIANA FRANCO

**G**ogoko dut zenbait pertsonak duen pentsatzeko modua, horietako bat da Pepe Mújica, Uruguai-ko presidente ohia. Gauza da Mújica jaunak baduela elkarrizketa bat non adimen artifizialaren inguruan hitz egin duen. Beharbada zenbait pertsonari arraro egingo zaio adimen artifizial bat sortu edota erabili ez duen norbaitek horri buruz bere hausnarketak egitea, baina ez da hain ariketa zaila, adimen artifiziala sortu dutenak gizakiak baitira.

Bada, Mújica jaunak uste du adimen artifizialaren eta beste teknologia batzuen garapenarekin pertsona asko esplotatuak izateko ere ez garela baliagarriak izango eta horrek garamatza lanaren behararen idearen inguruan pentsatzera. Adimen artifizialak arauak aldatzen hasi da. Orain arte, herrien garapenean kapitala garrantzitsua baten, Mújicak dio gaur egun gizartearen adimena dela aldagai erabakigarria. Errealitate honek munduan banaketa berria dakar: alde batetik esplotatuak izateko ere balio ez duten pertsonak, eta bestetik ezagutzaren jabeak.

Aldaketa teknologikoak harremanak aldatzen ari dira, gizarteko nerbio-ehuna eta gorpuzkera, erakusten ari dira gizakion gaitasunak eta gorputzak lan produktiborako ez direla hain beharrezkoak. Gauza da, bizi ditugun gizarteek eta ekonomiek lan produktiboan dutela oinarri nagusia. Gai izango ginateke gizakiok lan produktiboa makinaren esku utzi eta gure artean eta planeta-rekin bizitza on bat ahalbidetuko luketen gizarte eredu berriak sortzeko? Gizarteak eraikitzeke moduak, teknologiak eraikitzeke moduak bezain anitzak dira, eta bide bakarra ez da emango. Nire ustetan bizitza (bere aniztasun guztian) erdian jarriko duten gizarteak izango dira denontzako bizitza ona ahalbidetuko duten teknologiak sortzeko aukera izango duten bakarrak. ●

## NAZIOARTEA

# Na Vostok?

MIKEL ARAMENDI

**A**parteko erakarmenik ez luketen hitzordu batzuk girotzeko erretolika ote da ala benetako jirabuelta geopolitikoaren abiapuntua, munduaren etorkizuna baldintzatu dezaketen horietakoa? Edo beste askotan bezala, bigarrena izan nahi baina lehenengoan geratuko den zerbait?

Kontua da Ekialde Urrunean, Kim Jong-unen bisitaldiaren aitzakian baina ez horregatik bakarrik, segidan daraman egun mordoaren atarian, aldarrikapen potoloa bota zuela V. Putinnek: erabateko lehentasuna da Ekialde Urrunaren garapen ekonomikoa egungo Errusiarentzat. Mezua nahiko oharkabean geratu da. Eta lehendik ere eginak zituen beste batzuen ildoan letorke, azpimarraren intentsitatea beste berritasun handirik gabe.

Asmoa, gainera, ez da oraintxekoa, alafede. Errusiaren espantsio siberiarren benetako helmuga izan dela esan liteke. Baina beste kontinentean *Go West, young man!* harekin paretsuan abiatu bazen ere, *Na Vostok!* horrek Transiberiar Trenbidearen alboetan tarteka sortu eta ekonomia estraktibisten epelean hazi diren hiri batzuk besterik ez dituela erdietsi orain arte, esan liteke. Beraz, Primorski eta Khabarovsk ez dira Kalifornia.

Zergatiak begien bistakoak dira: klimatikoak, demografikoak, ekonomi-

koak, politikoak... eta ez dira nahierara hola eta hola aldatzen direnetakoak.

Baina egia da, halaber, XXI. mendea ez dela XIX.a ez XX.a ere. Munduaren ardatz ekonomikoak aspaldi alde egin zuten Atlantikotik Ozeano Barera; eta Europa ez da jada munduko gorabehera politiko-militarren erabakigunea. Artikoa desizozteak itsas-garraiobi-deak aldaraziko dituela esan beharrik ez dago, bestalde.

Beraz, Errusiak bere grabitate-zentroa Ekialde Urrunera zeharaldatu nahi izateak koherentzia osoa du. Bere garaian Pedro Handiak hiriburua Neva ibaiaren bokalera eraman zuenean bezalatsu. Egungo Errusian hain ugariak diren geostrategia eta antzekoen artean ere itzal nabaria duen egitasmoa da *Na Vostok!*, "Hoa Ekialdera!", eurasiatismoarekin uztartuta.

Burubero batzuen areto-estrategiak baino egitate faktikoagoak ere badaudela ez da ahaztu behar, ordea. Kimekin batera Putinnek egun hauetan bisitatu duen Vostotxni kosmodromoa da horietako bat. Baikonourreko azpiegitura historikoaren ordezkia izan behar duena, noski, ez da arinki planifikatutako zerbait izango, iraupenagatik, besterik ez bada ere.

Eta hura Txinako mugatik 100 kilometrorra egoteak ere zerbait adierazten du, nik uste. ●



ANTONIO MARIN SEGOVIA (CC BY-NC-ND 2.0)